

**C.**

Amaia estu eta larri dago. Gaur afaria du lagunekin, baina ez du dirurik. Nola irten estualditik? Nori eskatu dirua?

—Amari eskatuko ..... —pentsatzen du—, badakit zer esango .....: lana egin izan banu, orain ez ..... inori dirua eskatu behar izango. Mikeli eskatuko ....., berriz, hark utziko ..... bai, baina interesekin ordaintzekotan. Eta aitari eskatuko .....? Ezetz esango ..... hasieran, gogorrarena egingo luke. Baina nigar pixka bat eginda, bigunduko ..... . Bai, aitari eskatuko diot.

\* \* \*

**D.**

Bi gizon kalean.

—Aizu, Ramon, zer gertatuko litzateke horko semaforo hori hondatu eta gorrian geratuko balitz aldatu gabe?

—Ilara luzea egingo ..... . Berehala, saltsa izugarria sortaraziz. Atzekoek aurrena dagoenari bozina joko ....., segitzeko adierazi nahian. Baina aurrekoa semaforoa gorri ikusita ez litzateke mugituko eta orduan atzekoak argiak botako ..... behin eta berriz. Berdin izaten da beti!

\* \* \*

**E.**

—Iñaki, zuen etxera joango banintz, zer emango ..... afaltzeko?

—Begira, abisatu gabe etorriko ....., ez ..... gauza handirik aterako: entsalada eta xerra, betiko gauzak. Baina abisatuta etorriko bazina, afari goxoa prestatuko ..... . Saiatuko ..... zure gustuko zerbait egiten.

## BALDINTZA VI: IRREALA ETA HIPOTETIKOA (NOR-NORK)

Forma

**Gogoan izan:**

- ◆ Baldintza: BA + iragana -(e)N gabe
- ◆ Ondorioa: Iragana -(e)N gabe + KE  
(Hirugarren pertsona Z- → L-)

### a. Baldintza

	ni	zu	hura	gu	zuek	haiek
nik	~	BAZINTUT	banu	~	BAZINTUZTET	banitu
zuk	BANINDUZU	~	bazenu	BAGINTUZU	~	bazenitu
hark	BANINDU	BAZINTU	balu	BAGINTU	BAZINTUZTE	balitu
guk	~	BAZINTUGU	bagenu	~	BAZINTUZTEGU	bagenitu
zuek	BANINDUZUE	~	bazenute	BAGINTUZUE	~	bazenituzte
haiek	BANINDUTE	BAZINTUZTE	balute	BAGINTUZTE	BAZINTUZTE(TE)	balituzte

### b. Ondorioa

	ni	zu	hura	gu	zuek	haiek
nik	~	ZINTUZKET	nuke	~	ZINTUZKETET	nituzke
zuk	NINDUKEZU	~	zenuke	GINTUZKEZU	~	zenituzke
hark	NINDUKE	ZINTUZKE	luke	GINTUZKE	ZINTUZKETE	lituzke
guk	~	ZINTUZKEGU	genuke	~	ZINTUZKETEGU	genituzke
zuek	NINDUKEZUE	~	zenukete	GINTUZKEZUE	~	zenituzkete
haiek	NINDUKETE	ZINTUZKETE	lukete	GINTUZKETE	ZINTUZKETE(TE)	lituzkete

Erabilera:

**Baldintza irrealia:**

PARTIZIPIO (izan) + BANU, -KO ZUEN (orduan)  
-KO LUKE (orain-gero)

**Baldintza hipotetikoa:**

BANU  
-KO BANU -KO LUKE

**Adibidez:**



*Ikusi bazintut, elkarrekin joango ginen.*  
(si te hubiera visto, habríamos ido juntos)

*Onartu izan banindu, berarekin biziko nintzateke orain.*  
(si me hubiera aceptado, ahora viviría con él)

*Ikusiko bazintut, elkarrekin joango ginateke.*  
(si te viera, iríamos juntos)

*Onartuko banindu, berarekin biziko nintzateke.*  
(si me aceptara, viviría con él)

*Irabazi bazenu, txaloka hartuko zintugun.*  
(si hubieras ganado, te habríamos recibido con aplausos)

*Irabazi bazenu, txaloka hartuko zintuzkegu.*  
(si hubieras ganado, te recibiríamos con aplausos)

*Irabaziko bazenu, txaloka hartuko zintuzkegu.*  
(si ganaras, te recibiríamos con aplausos)



# ARIKETAK

## 5. PASA BALDINTZA IRREALERA

Adibidez:

*Maite banauzu, ez didazu horrelakorik egingo*

☛ *Maite baninduzu, ez zenidake horrelakorik egingo*

1. Horrela ikusten banau, haserretuko da.
2. Horrela jantzita ikusten banauzu, ez nauzu ezagutuko.
3. Botika ona da; egunean bitan hartzen baduzu, guztiz sendatuko zaitu.
4. Nekagarria da; kasu egiten badiozue, neka-neka eginda utziko zaituzte.
5. Musikari ona da Jon. Sariketa horretan aurkezten bada, ez gaitu leku txarrean utziko.
6. Horri uzten badiozue ibilaldia antolatzen, lekurik itsusienetara eramango zaituzte.
7. Kasu egiten badiogu, zoratu egingo gaitu azkenerako.
8. Zuek eramaten banauzue, lehenago iritsiko naiz.
9. Inozogia bazara, edozeinek engainatuko zaitu.
10. Erne bagaude, ez gaitu inork engainatuko.

## 6. EGOKIENA AUKERA

1. Benetan, ez zintudan ikusi. Ikusi ....., esango nizun zerbait.  
• bazenitu    • bazintut    • bazintuen    • banizu
2. Oinez etorri gara eta berandu iritsi gara. Zuk ekarri ....., garaiz iritsik ginen.  
• bagintu    • bazenigu    • bagintuzu    • bazenu
3. Hotel guztiak beteta daude. Norbaitek bere etxean hartuko ....., pozik joango nintzateke Joku Olinpikoetara.  
• banau    • banindute    • banu    • banindu
4. Norbaitek irainduko ....., zu lasai; ezjakin hutsak dira.  
• bazintu    • bazaitu    • bazara    • bazintuzke
5. Hobeto ezagutu ....., ez zintuztegun enplegatuko.  
• bagenizu    • bazenigu    • bazintuztegu    • bazintuzte
6. Atseginagoak bazinete, edozeinek hartuko ..... bere etxean.  
• zintuen    • zintuzkete    • zintuzten    • zintudake
7. Gazteago bagina, lan honek ez ..... hainbeste nekatuko.  
• gintuen    • gintuzun    • gintuzke    • gintu
8. Aberatsagoa banintz, ez ..... hain gaizki tratatuko.  
• ninduzun    • ninduzuen    • nindukezu    • nituzke
9. Aberatsagoa izan banintz, ez ..... hain gaizki tratatuko.  
• ninduzun    • nituzke    • zintuzke    • banitu
10. Inauterietan ikusiko bagintuzue, ez ..... ezagutuko.  
• nindukezue    • ninduzuen    • gintuzuen    • gintuzkezue

## BALDINTZA VII: IRREALA ETA HIPOTETIKOA (ZER-NORI)

### a. Baldintza

	<i>niri</i>	<i>zuri</i>	<i>hari</i>	<i>guri</i>	<i>zuei</i>	<i>haiei</i>
<i>hura</i>	BALITZAIT	BALITZAIZU	BALITZAIO	BALITZAIGU	BALITZAIZUE	BALITZAIE
<i>haiek</i>	BALITZAIZKIT	BALITZAIZKIZU	BALITZAIZKIO	BALITZAIZKIGU	BALITZAIZKIZUE	BALITZAIZKIE

### b. Ondorioa

	<i>niri</i>	<i>zuri</i>	<i>hari</i>	<i>guri</i>	<i>zuei</i>	<i>haiei</i>
<i>hura</i>	LITZAIDAKE	LITZAIZUKE	LITZAIIOKE	LITZAIGUKE	LITZAIZUEKE	LITZAIIEKE
<i>haiek</i>	LITZAIZKIDAKE	LITZAIZKIZUKE	LITZAIZKIOKE	LITZAIZKIGUKE	LITZAIZKIZUEKE	LITZAIZKIEKE

#### Adibidez:



*Galdu balitzaizu, agertuko zen.*

(si se te hubiera perdido, ya habría aparecido)

*Galdu balitzaizu, agertuko litzateke.*

(si se te hubiera perdido, ya aparecería)

*Beste zerbait egin behar bagenu, ez litzaiguke inportako.*

(si tuviéramos que hacer alguna otra cosa, no nos importaría)

## ARIKETAK

### 7. PASA BALDINTZA HIPOTETIKORA

- Hondatzen bazaizu, berehala konponduko dizugu.
- Sukaldaritza gustatzen bazaio, utziko diot afaria prestatzen.
- Zapata hauek gustatzen ez bazaizkizu, beste batzuk ekarriko dizkizut.
- Lasai, zerbait gertatzen bazait, deituko dizut.
- Denak batera etortzen bazaizkigu, ez gara etxean kabituko.
- Bi gupil zulatzen bazaizkio, ezingo ditu biak batera aldatu.
- Gurasoei ahazten bazaie, semeak gogoraraziko die.
- Loteria tokatzen bazaizue, zer egingo duzue?
- Etxean geratzen bazarete, amari ez zaio gustatuko.
- Lanak eginda uzten badituzue, ez zait inportako lehenago ateratzea.
- Asko ibiltzen bazarete, handitu egingo zaizkizu oinak.
- Inportako al zaizue laguna ekartzen badut?

## 8. AMAITU EDO HAS PERPAUSAK

Adibidez:

⇒ *Gustatu izan balitzaio, erosiko zuen.*

1. Nire lagunari futbola gustatuko balitzaio, .....
2. Loteria tokatu balitzaigu, .....
3. Hauek handiegiak irudituko balitzaizkio, .....
4. Lagunak diru eske etorriko balitzaizkizu, .....
5. Semea etxetik joango balitzaie, .....
6. Lehenago gogoratu balitzaizue, .....
7. Niri ahaztu ez balitzait, .....
8. Eskale haiek inguratuko balitzaizkigu, .....

- 
9. ...., ez litzaidake inportako.
  10. ...., ez zitzaigun ahaztuko.
  11. ...., ez litzaiguke hain erraz ahaztuko.
  12. ...., ondo irudituko litzaizueke?
  13. ...., gustatuko litzaioke.
  14. ...., oso ondo geratuko litzaizkioke.
  15. ...., ondo etorriko litzaioke.

